

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

**Mikel Basabe Kortabarría** Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkideak, indarrean den araudiaren babesean, osoko bilkuran erantzuteko 'Arrasaten Ertzaintzak euskal presoak Euskal Herrira ekartzea aldarrikatzen duten zapiak zergatik kendu zituen azal dezan' hurrengo **interpelazioa** egiten dio Rodolfo Ares Taboada Herrizaingo sailburuari:

### **ZIOA**

EAEko Auzitegi Nagusiak Etxerat-en eskaerei arrazoi emanda Arrasateko elkarretaratzeetan presoan argazkiak erakustea baimendu zuen arren, Auzitegi Nazionalak debekatu egin zuen ekitaldia, irailaren 25ean. Hori ikusita, Etxeratek bertan behera utzi zuen ekitaldia, baina 40 bat lagun bildu ziren kontuan eta euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzen duen zapiak (Euskal Herriko mapa eta geziak dituena) eskuan. Ertzaintza bertaratu egin zen eta hara batutako pertsoneri aipaturiko zapiak kendu egin zizkieten. Kontuan izanda Etxerat legezko erakundea dela eta kontuan izanik zapi horiek presoak euskal herriratzeko aldarrikatzen duela, ez zaigu onargarria iruditzen Ertzaintzaren jokaera.

Hori dela eta, Herrizaingo sailburu Rodolfo Aresi hurrengo interpelazioa egiten dio:

### **INTERPELAZIOA**

Presoen sakabanaketa politikaren kontrako eta Euskal Herrira ekartzeko aldarrikapena jasotzen duten zapiak zergatik erretiratu zituen Ertzaintzak, irailaren 25ean, Arrasaten? Ze oinarri juridiko erabili du jokabide horretarako? Bide batez, norik eman zuen aldarrikapen hori jasotzen zuten kartelak erretiratzeko agindua?

**Gasteizen, 2009ko irailaren 30ean**

**Mikel Basabe Kortabarría**  
**Aralar legebiltzar-taldeko bozeramailea**